

ETORRIKO DIRA... BAI ORIXE! ala LAGUNDU LAGUN-EGIÑAZ?

Era askotako pertsonak dagozala ezin ukatu. Gaiñera olaxe izan bear da: bakoitza bakoitza da ta bakoitzalakorik ez da egon, ez dago ta ez da ifioiz be egongo.

Baiña, nai-ta asko be asko simplifikatu, pertsonak talde bitan bereiztuko neukez:

1) Bizitzan bizi-utsa diranak: eguna joan eta eguna etorri... ca biar zer gertatzen dan... ekiten barik beti itxaroten dagozanak eta

2) Bizitza bizi dabenak: egunak 48 ordu euki bear ko leukez eurak eskuartean darabillezan gai ei erantzun egoki bat emoteko, egoerak eta aldiak sakonki astertzen dabenak... iturburuak billatuz eta ondorioak ondo neurtuz aal danik eta onena guztiontzat lortu nairik.

Batzuk, bada, «ikusle» utsak; besteak, «ikasle» sutsuak.

Zer esanik be ez dago mundua «aurrelariantzat» izan bear dala.

Gaur normala egiten jaku an, or eta emen entzutea: Auxe bai izan dala munduak emon dauan aldakuntza! Dana dago an-

kaz gora! Ia leengo gauza guztiak jausi dira ta berealaxe sortu ta sartu jakuzan egoera barriak gainezka egiten dauskue!

Familia, irakaskuntza, kultura, ekonomia, politika, erlijioa, ezikuntza, musika ta antzerki barriak, jazkerak, oiturak, gaztedia... dana dago beste ikuspegi ezezagun baten menpean!

Txarrena auxe da: gaur dirala ogei urte ta geiago, erakunde batzuk eta gizon ospetsu batzuk ere argi ta garbi ulettzen emon euskuela aldakuntza orrean etorrera! Baiña, geienetan lez, gizon aurrelariak, argiak eta sakonak ameslaritzat artzen dira. «Profetak» ez dira egundo onartuak izan. Argi dago: geuretzat kaltegarriago! Uriolak eta ekaitzaldiak igaro bearko dira leentxoago edo gerotxoago...!

Neure idazlantxo au arlo batera nai dot eroan: GAZTEDIAREN arlora, ain zuzen be.

Gure gaztediaren zati eder bat nondik-nora jo ez jakiflean dabillega argi dago: erreta, ilusio barik, etorkizun baltz baten ikusle izanik, barruko bakerik-ezaz, sentitzen daberen pertsonek bakardadea edozelako eta edonungo batzarrekin itto edo alaitu nairik, abiadaz eta zarataz (motorrak, «gaztetxeak»...) «emen naukazue ni» esannaika...

Ez da arritzekoa gazte onein jokabidea «ezezkotasunez» jantzita egotea. Itxaropena galtzen bada... dana galdu da. Orregaitik, gure eginbearra, Itxaropen-sortzailleak izatea da.

Zoritxarrez, askori entzuten jake: «Lasai, lasai... ETORRIKO DIRA-TA... BAI ORIXE! EMENDIK OGEI URTERA...»

Onelako astokeriak entzuteak niñez betetzen gaitue gazteen artean lanean diardugunok. Eta... ez badira etortzen? Bidean galtzen badira, zer? Edo-ta, datozenean erdi-galduta badatoz?

EGIAK, ZUZENTASUNAK eta MAITASUNAK BETI AURREA ARTZEN DAKIE. Aurrelariak dira. Ortze dago gure itxaropena:

egizaleetan, zuzentasunaren egarriz bizi diranetan eta, batez ere, egizko maitasunaz euren biotzak pil-pilka dauketan.

Borondate oneko gizonen artean -eta konpondu bear diren arazo guztien erdian- auxe izan dedilla gure pentsakera, esakera eta jokaera:

LAGUNDU DAGIEGUN. EUREN LAGUN-EGIÑAZ!!!

Onela jokatu ezkeru, ziur nago beste giro itxaropentsu baten sortzailleak eta ikusleak izango garana.

Kepa Agirre



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14 Trañabarren-Bloque, 1-4-13
Urrut: 673 0509 **Matiena - Abadiano**
AMOREBIETA